

Artoa on-ona baita,
etxean ezpedi falta;
soroan berde, oraskan irin,
erabat duzu aparta:
taloa janik aziaz noa
ziurki sendi galanta.

LILITEGIA

*Baserri aldea berez da loretegi, udaberri ta udagoienez
batez ere; usai ta kolorez duzu guztia. Baserri saietsean,
orraitio, egoki ematen dizu lilitegi apaiñak. Nere emazteak
orrela du gurean.*

Doiñu: «Maritxu, nora zoaz...».

Lore sailla badaukat
leraz edertua,
gaurtik ditu opaka
bost-sei bat arrua.
Badut zeregin ortan
emazte zintzua!
Berak darama orren
ardura osua.

Berein aziño dauzka
gaur-gero ereiñak,
mao (1), krabelin, txidar,
burupil bikaiñak,
eta beste amaika
txotxetik egiñak,
azi eta landare
biarko liraiñak.

(1) Julufrin.

Gezurrak ez du oiñik,
errenak lotsarik,
nor zuk lenago atzi
gezurtia baizik?
Ala ere onetan
ez diot gezurrik:
loretegia oso
dut urrez jantzirik.

Orman gora dijoan
untza (2) biurkorra
loratzen asia dut
gutziz lizunkorra.
Urkitz, gardeni,
so ezazu orra,
zerk ez dun leiaketa
erne-min bizkorra.

Lau aldiz egunean
eldu oi da ona
berakin ditula aurrak
nere zoriona.
Lilitan bera
badu esker-ona
biotz-barruz joria
jaunari diona.

(2) Untz-osto.